Bidelaguna programa DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzenduta dago, aniztasunari erantzuteko jardueretako bat da; oinarrian, ikasleen gaitasunaren garapena hobetzean datza. Ikasleei denbora osagarri bat eskainita ordutegiz kanpo astean hirutan.

Arduraduna: Nagore Alcarreta.

## STEAM

Hasiera batean gure jardueraren jomuga Jaizkibelen jarri genuen JAIZKIBEL AMEZTU proiektua aurrera eramanez, jarraian begirada altxatu eta zerua eta gure eguzki-sistema lantzen zuen proiektua gauzatu genuen, IZARREN HAUTSA. Hurrengo ikasturtean, begiradaren jomuga gerturatu eta eskolako jolas-eremu baten eraldaketa landu genuen. Eremu hau D eraikinaren ondoan dago eta 10.000 $m^2$ eraiki gabeko gune laukizuzena da, aukera anitzak ahalbidetzen dituen gunea.

Ikasturte honetan, beste urrats bat eman dugu eta Abenduko azken astea STEAM ASTEA izendatu dugu. Aste honetan BERRIZTA - ON izeneko proiektua aurrera eramango dute DBH2ko ikasleek. Ikasgai guztietan energiari buruzko hausnarketa egin eta ekintza ezberdinak egingo dituzte, aerosorgailuen ekoizpena izanik azken ataza. DBH4koek berriz, Elhuyarren zientzia-astera eramango dute energia berriztagarriekin lotutako proiektua.

Arduradunak: Aitor Ruiz eta Oihana Oronoz.

## HBSP-PREE

HBSP programa DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzenduta dago, aniztasunari erantzuteko jardueretako bat da.

Indartze neurri gisa arlo instrumentaletan bikoizketa egingo da , hau da, Matematika, Euskara eta Gaztelanian. Era honetan ziurtatu nahi da behar handienak dituzten ikasleek beharrezko duten atentzioa jasotzea.

Koordinatzailea: Elena Arnaiz

## PREBENTZIOA

1998. urtetik Hondarribiko udalak ikastetxean lantzen duen prebentzio-programa DBHko eta batxilergoko maila guztietan esku hartzen du.

Koordinatzailea: Nuria Figueroa

### 3.1.3 Prestakuntza eta garapen profesionala

## Ikastetxearen prestakuntza-proiektu edota ekintzak

Ikastetxeko irakasle-taldeak honako proiektuetan eta prestakuntzatan parte hartuko du:

- Berritzegune nagusiak prestatutako "**Curriculuma eta Irakasleen Konpetentzia Digitala**" 50 orduko ikastaroa curriculuma lantzeko eta, gaitasun digitalak akreditzeko (A2 profila).
- Berritzegune nagusiak prestatutako "**Eremuka lantzen sarea**"n, parte hartuko dugu eta hor ariko diren berrikuntzako arduradunek. irakasle-taldeari 10 orduko prestakuntza eskainiko diote, eremuka ikasleekin lantzeko hainbat proiektu prestatzeko asmoz.

## Ikastetxearen beste prestakuntza-proiektu edota ekintzak

- **ZERBIKAS** fundazioaren bitartez zerbitzu-irakaskuntzaren inguruko motibazio-saioa burutu da, bi ordukoa, aurten martxan jarri den "proiektu komunitarioa" saioari erantzun emateko asmoz eta etorkizunera begira.

## Irakasleriaren ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzak lan-ordutegian

- Zenbait proiektu-arduradun (berrikuntza, bizikidetza, normalkuntza, agenda2030, PT, orientatzaileak, zuzendariak) dagozkien mintegietan parte hartzen dute berritzegune nagusian, Irungo berritzeunean, zein ingurugelan.
- Kontxi Laboak Hezkuntza sailaren **IRALE** programan parte hartuko du, R600 ikastaroan.
- Saioa Benavidesek Hezkuntza sailaren **IRALE** programan parte hartuko du, R300 ikastaroan.
- Eneko Llanok "orientaTU" jarduera burutu du EHUn.
- Nagore Alcarretak "Irakasle orientatzaile berriak martxan" izeneko ikastaroa burutu du berritzegunean.

# Ikastetxearen formakutza planarekin lotutako lan-ordutegitik kanpoko prestakuntza-ekintzak

- Monika Iparragirrek **Prest gara** programa barruko "Adimen gaitasun handiko ikasleei erantzutea eskola inklusiboan" ikastaroan parte hartuko du.
- Maitane Toledok **Prest gara** programa barruko "Kulturarteko gatazken prebentzioa ikasgeletan" eta "Dolu prozesuetan laguntzeko tresnak" ikastaroetan parte hartuko du. Horrez gain "Lehen Hezkuntza Eraldatzen" graduondokoan parte hartzen du.
- Oihana Oronoz, Imanol Santos eta Jon Puignauk **ZERBIKAS** fundazioaren "Garapen jasangarrirako helburuak zerbitzugune gisa I+Z proiektuetan" ikastaroan parte hartuko dute.
- Oihana Oronoz eta Imanol Santosek **UIK**ren "Ekintza komunitarioa: erronkak eta esperientziak" ikastaroan parte hartu dute.
- Jon Puignauk **Prest gara** programa barruko "Moodle: ikaskuntzarako ingurune digitala" ikastaroan, eta **MiriadaX**en "Innovación Educativa: un RoadMap" ikastaroan parte hartuko du.

# 3.2 Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa

## Hezkuntza fisikoa

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Hendaia | 22/10/5<br>22/10/7 | Surf-apraktikatzea. | 1A+1B+1C+ 1D | 1579 € + BEZ |
| Hondarribia | 22/10/3<br>22/10/4<br>22/10/7 | SUP-a praktikatzea | 2A+2B+2C+ 2D+2E | 1240 € + BEZ |
| D´elikatuz zentrua Ordizian | | Elikaduraren inguruko zentrua bisitatzea, elikadura osasungarria lantzea. | Osasun fisikoa emozionala I eta II DBH3<br><br>Osasun fisikoa eta emozionala DBH 1 | Autobusa |
| Gorputzetik ikasten (biodantza)<br><br>Ikastetxean | | Emozioen lanketa, gorputzarekin konektatzea, adierazpena | Osasun fisikoa emozionala I eta II DBH3<br><br>Osasun fisikoa eta emozionala DBH 1 | 1280 €<br><br>%90 Kultura eskola |
| Espeleologia itziarren | | Espeleologia praktikatzea | Batxi 1A,1B,1C | Autobusa |
| AESLEME hitzaldia Ikastetxean | | Istripuen prebentzioa, sentsibilizazioa eta lehen sorospenak | Batxi 1A,1B,1C | Doan |
| Izotz hockeya Donostiako izotz jauregian | 2022/10/11 era 10/20 | Izotz hockeya praktikatzea | DBH3 osoa | 590€ |
| Esgrima ikastaroa Ikastetxean | 2.ebaluazioan | Esgrima saio bat egitea Borroka kirolak unitate didaktikoaren barruan | DBH3 osoa | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Orientazio kirola Aiako Harrian | 3. ebaluazioan | Orientazio kirola natura ingurunean egitea | DBH3 osoa | |
| Eskalada | 3. ebauazioan. Maiatza | Eskalada praktikatzea | 4. DBH | |

## Geografia eta historia

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FIN ANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **Gasteiz**, Katedrala | 2. Ebalu | Klasean ikusi dugun arte **gotikoaren** adibide bat ikustea | 2A, 2B, 2C, 2D, 2E | 864 € + autobusa |
| **Zestoa**, Ekainberri | 2. Ebalu | **Historiaurreko** horma pinturen adibide bat ezagutzea | 1A, 1B, 1C, 1D | |
| Gipuzkoako Batzar Nagusiak | Otsaila | Gipuzkoako lurralde erkidegoko sektore publikoa ezagutzea | DBH4 (Ekonomiakoak) | |
| Donostiako Gerra Zibileko Oroimen Historikoaren ibilbidea | Martxoa | Gerra Zibilaren eta honen oroimen historikoaren nondik norako zehatzak ezagutzea Donostian. | Batx 2A, 2B, 2C | |
| Ikastetxean | | Memoria historikoa orainalditik: Genero berdintasuna, giza duintasuna eta eskubideak. landu | DBH4 | 450 €<br>%90 Kultura eskola |

## Orientazioa

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Kultur Etxea | Abenduak 15 | "Mimarte" (Peter Roberts)<br>Alkoholismoa gazterian | DBH1 | Doan (Prebentzioaren bidez) |
| Ikastetxean | Azaroak 14-29 artean | Berdindu<br>Sexu eta genero-aniztasuna | DBH2 | Doan |

## Fisika-kimika

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Elordi(ur edangarriaren araztegia) Irun | Urtarrila | Ur edangarria bihurtzeko prozesu fisiko/kimikoak ezagutzea | 2A+2B+2C+ 2D+2E | Autobusa |
| Atakerreka (hondakin-uren araztegia) Hondarribia | Maiatzaren 1. astean | Hondakin urak araztean parte hartzen duten prozesuak (fisiko/kimikoak zein biologikoak) ezagutzea | 3A+3B+3C +3D+3E | Doan (Txinzer) |
| Tecnalia Donostia | Otsaila? | Ikerketa zentro bat ezagutzea | 4. DBH-ko fisika/Kimikako ikasleak | Autobusa |
| Don Bosco | Martxoa | Laborategiko lana ezagutzea | 2. BATXI-ko KIMIKAkoak | Autobusa |
| Nobel saria | Apirila | Ikasleak zientzia mundura hurbiltzea | 2. BATXI-ko FISIKAkoak | Haiek bere kabuz busez doaz |

## Gaztelania

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/ FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Bibao | Martxoa | Teatro latinoa ikustea (Plauto) | DBH4<br>Batx 1<br>Batx 2 | Autobusa |
| Ikastetxean | | Radio ficción | DBH1 | 260 €<br>%90 Kultura eskola |

## Ingelesa

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/ FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Ikastetxean | 22/12/09 | Face to face Antzerki konpañia: “Hotel Canterville” | DBH1<br>DBH2<br>DBH3 | 1260 € |
| Ikastetxean | 22/12/09 | Face to face Antzerki konpañia: “That’s Life” | DBH4<br>Batxi1<br>Batxi2 | |
| Ikastetxean | | Barry Barrez Bakarrizketa, “Irlandar eta Euskaldun” | DBH1<br>DBH2<br>DBH3<br>DBH4 | 400 € + BEZ<br>%90 Kultura eskolak |

## Biologia - Geologia

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Plaiaundi | 3 hiruhilekoan. 3 egun. | Hegaztiak eta bestelako izaki bizidunak aztertu. | DBH1 | 1 euro ikasleko + autobusa |
| Jaizkibel | Ikasturte amaieran | Inguruko fauna eta flora aztertu. | DBH1 | Doan |
| Ikastetxean | 1. ebal (azaroak 8) | Hondakinen tailerra. Sailkapena egoki egiten ikasi + kontzientziazioa. | DBH1 | Doan |
| Ikastetxean | 1. ebal (azaroak 14 eta 15) | Kontsumo tailerra | DBH3 | Doan |
| Ikastetxean | 3. ebaluazioan. | AESLEME - Mugikortasun-segurtasuna. | DBH3 | Doan |
| Ikastetxean | 2.edo 3. Ebaluazioan | Lehen Sorospenak | DBH3 | Autobusa<br>Guraso elkarteak |
| Jaizkibel | 1 ebal. (Urriak 7) | Hazien bila joan basozainarekin | DBH4 Zientzia aplikatuak | Doan (Diputazioa) |
| Hondarribia hondartza | 1 ebal | Azterkosta | DBH4 Zientzia aplikatuak | Doan |
| Jaizkibel edo Txiplao | 2 ebal | Ibaialde | DBH4 Zientzia aplikatuak | Doan |
| Hondarribia | 2 ebal. | Hondarribiako baratzak | DBH4 Zientzia aplikatuak | Doan |
| Jaizkibel | 3 ebal | AZTERTU NATURA Euskadiko ekosistema adierazgarrienak ezagutarazi eta aztertu | DBH4 Zientzia aplikatuak | Doan |
| Aiako Harria. | 3 ebal (Apirilak 24) | Uraren bidea (Elurretxe - Irun) | DBH4 Zientzia apl | Autobusa |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Donostia Eureka Zientzia museoa | 2 ebal (urtarrila 11) | Eureka Zientzia museoan Planetarioan saioa eta Plastination saio gidatua. | DBH4 Kultura Zientifikoa | Autobusa (Anatomiakoekin batera) + 7,5 ikasleko (60 euro) |
| Oiartzun Luberri geologia museoa | 1 ebal. Azaroak 8 eta 9 | Euskal herriko geologia eta historia geologikoa, arroka motak eta fosilak aztertu. | DBH4 BioGeo | Autobusa (515€) + 3 euro ikasleko (177 euro) |
| Ikastetxean | 3 ebal (Apirilak 19) | Energia eta honen erabilerak aldaketa klimatikoan eta gaur egungo bizimoduan duen eragina ezagutzea. | DBH4 BioGeo | Doan |
| Aiako Harria (Luberri) | 1 ebal | Bidasoako historia geologikoa eta Aiako Harriaren formazioa. | 1 Batx BioGeo | 5 euro ikasleko (150 euro) + Autobusa |
| Mutriku | 2 ebal | Kardala zentroaren bisita (Akuikultura formakuntza profesionaleko goi zikloa) eta Mutrikuko energia maremotriz zentrora bisita | 1 Batx BioGeo | 2 euro ikasleko (60 euro) + Autobusa |
| Zumaia | 3 ebal (Martxoak 24) | Algorri museoa, bertako geologia eta bioaniztasuna | 1 Batx BioGeo | 190 euro + Autobusa |
| Irun Aiako Harria | 3 ebal (Apirilak 21) | Uraren Bidea (Txingudi zerbitzuak). Elurretxe inguruan urak duen bidea, bere ingurunea, garrantzia ezagutzea, zenbait jarduera eta erronka burutuz. | 1 Batx BioGeo | Autobusa |
| Ikastexean | 2 edo 3 ebal | Aranzadi Zientzia Elkarteak eskainitako Hezurren tailerra (Eskola Kultura) | 1 Batx. Anatomia Aplikatua | 968 €<br><br>%90 Kultura eskolak |
| Ikastetxean | 2 ebal | Lehen Sorospenak | 1 Batx. Anatomia Aplikatua | Autobusa |
| Irun | 1 ebal | Txinzer-en Scape Hall: garapen iraunkorrerako helburuak | 2 Batx. LIZ | Doan |
| Donostia | 2 ebal | BIODONOSTIAKO instalazioak eta jarduera ezagutu | 2 Batx. BioGeo | Autobusa |

## Musika

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Ikastetxean | | **Emakumeak oholtzara**. Musikaren munduan dagoen genero arrakala ezagutarazi | Batxi1 | 1086 € (%90 Kultura eskolak) |
| Ikastetxean | | **Munduko soinuak** (Pablo Mezzelani). Beste kulturak ezagutarazi eta zehazki haietako instrumentuak | DBH 1 | 995+BEZ |

## Filosofia

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Donostia edo Bilbo | 2. Ebal. | Filosofia olinpiadak: sari banaketa | 1. Batxi. | Autobusa |
| Hernani | 3. Ebal. | Txillida Leku | 1. Batxi | Autobusa + Sarrera (75*6= 450€) |
| Donostia | 2. Ebal. | Haize-gain. | 2. Batxi | Autobusa |
| Ikastetxean | | "Butterfly effect" antzerkia. Gizakiaren eboluzioari buruz arituko da. Eboluzio horretan, gizabanako bakoitzaren keinu txikiek izan duten garrantziaz. | DBH2 | 1650€ (%90 Kultura eskolak) |

## Euskara

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Almagro | 2023-03-21/24 | Antzezlana: La Celestina.<br>Literatura Unibertsala. | BATXI 1C (23 ikasle) | 5.962 €<br>Eusko jaurlaritzak<br>Guraso elkarteak<br>30€/ikasleko |
| Ikastetxean | 3.eb. | Idazleak ikastetxeetan | DBH1 | 600 € |
| Altzora | 2.eb. | Handia filma aztertu ondoren herrira bisitaldia | DBH2 | Autobusa + 2 € ikasleko |
| Abbadie Jauregia | 2.eb. | Lore jokoak aztertu ondoren horren sortzailearen jauregia bisita. | DBH3 | Autobusa+ bisita |
| Ikastetxean | 1.eb. | Irakurzaletasuna sustatzeko tailerra. | DBH4 | doan |
| Euskararen etxea. Bilbo | 2.-3.eb. | Euskararen Interpretazio zentroa ezagutu. | Batxi1 | Autobusa |
| Durangoko azoka | Abenduan | Azoka eta euskal kultura ezagutzea | Batxi2 | 515€ |

## Frantsesa

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Biarritz | 3. eb. | Cité de l'Océan eta hiria ezagutzea | 2DBH | Autobusa + sarrera (10 euro aurtengo prezioa mantentzen bada) |
| Biarritz | 3. eb. | Cité de l'Océan eta hiria ezagutzea | 4DBH | autobusa + sarrera (10 euro aurtengo prezioa mantentzen bada) |

## Teknologia

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA/FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Trenaren museoa (Azpeitia) | Otsaila | Gelan landutako mekanismoak errealitatean ikusi. Gelan landutako Trasmisio mugimendua errealitatean ikusi. | DBH2 osoa | 900€ + autobusa |
| Pagoeta Agorregi | Abendua 1 eta 2 | Gelan landutako mekanismoak errealitatean ikusi. Gelan landutako Trasmisio mugimendua errealitatean ikusi. | DBH3 osoa | autobusa + 4€ ikasleko |
| Irizar koop Ormaiztegi | Otsaila | Fabrikazio-kateak ikusi | BATXI1 eta BATXI2 ko TEKNOLOGIAKO IKASLEAK | Autobusa<br>Eusko jaurlaritza |

## Beste batzuk

| NORA EDO NON | NOIZ | HELBURUA | TALDEAK/ IKASLEAK | AURREKONTUA /FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **PROIEKTU KOMUNITARIOA:**<br>Opila sukaldatu | Azaroa 7-10 | Elkartean opila sukaldatu | DBH3 osoa | 120 € |
| **STEAM:** "Cinecicleta" saioa | Abendua 22 | Cinecicleta hitzaldia emango dute beraien bidaiari buruz | DBH2 osoa | STEAM aurrekontua |

Aurrekoez gain, ondorengo ekintza osagarriak aurreikusten dira:

- **Jaialdiak ikastetxean**

-San Tomas/Gabonetako jaialdia.
-2.batxilergoko ikasleei agur-ekitaldia.
-DBHko azken eguneko jaialdia edo/eta irteera.

- **Ikas-bidaiak (berrekin)**

- 1. batxilergoko ikas-bidaia aste santu aurretik, astebetez.
- 2. batxilergoko ikas-bidaia aste santuan (COVIDak sortutako ez-ohiko egoera dela eta maila honek ezin izan zuelako bere garaian egin)

- **Elkartrukeak (berrekin)**

-DBH3ko elkartrukea Frantzian: Collège “Pays des Abers”
- DBH4ko elkartrukea Italian: Liceo Statale “Eugenio Montale”

- **Data eta ekintza bereziak hezkidetzatik:**

-Azaroak 25 (emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna)
-Martxoak 8 (emakumeen nazioarteko eguna)
-Otsailak 11 (emakume zientzialarien eguna).

# 4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

| JARDUERA | HELBURUAK | ANTOLATZAILEA | ARDURADUNA | JASOTZAILEAK | NON/NOIZ | AURREKONTUA/ FINANTZAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Boleibola | Kirolaren bidez adiskidetasuna eta kolaborazioa bultzatzea Bizi-ohitura osasungarriak sustatzea. Emakumeen artean jarduera fisikoa sustatzea | Eskola kirola eta “Harresi” elkartea | Gorka Obeso | DBH eta batxiko ikasleak | Astelehenetik Ostegunera<br><br>Gimnasio berria 16:00-18:30 | Familiak eta guraso-elkartea |

# 5. IKASTETXEKO ZERBITZUAK

| Jarduera | Helburuak | Arduraduna | Ordutegia | Finantziazioa |
|---|---|---|---|---|
| **JANTOKIA** | Etxean bazkaldu ezin duten ikasleek bazkaltzeko aukera izatea | Gabriel Barrondo | Astelehen, astearte eta ostegunetan: 12:10-13:40<br>Asteazken eta ostiraletan:<br>14:00-15.00 | Kuotak |
| **GARRAIOA** | Ikastetxetik urruti bizi diren ikasleen joan-etorriak bermatzea | Eusko jaurlaritza | Astelehenetik ostiralera goizean ikastetxera 8tarako ekarri eta klaseak bukatzean eraman (eguerdiko zerbitzurik ez dago) | Eusko jaurlaritza |
| **LIBURUTEGIA** | Irakurmena sustatzea | Kristina Arbide / Kepa Zuñiga | Astelehenetik ostiralera jolas garaietan eta astelehen, astearte eta ostegunetan jangela orduan. | Kuotak |

# 6. EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANA

## Ekonomia-kudeaketaren arduradunak.

Zuzendariaren oniritziaz, idazkaria eta zuzendari albokoa baliabide ekonomiko guztiak kudeatzeko arduradunak dira.

## Funtzionamendua

Ondorengo puntuan zehazten diren diru-sarrerak momentuko beharren arabera kudeatzen dira.
Alde batetik mintegietatik jasotako eskaerak baloratu eta oniritzia ematen zaie.

Bestalde eskolaren azpiegiturako urteroko gastuak daude. Aurten, gasaren eta argindarraren prezioen igoera dela eta, gastu hauek sekulako igoera izan dute eta izango dute. Hezkuntza sailetik jasotako diru-sarrera, berriz, ez da aldatu eta horrek eragina izan dezake zenbait jarduerei/materialari/obrei aurre egiteko garaian.

Edonola ere, argindarraren gastuak gutxitzeko asmoz eta garapen jasangarri batera bideratzeko asmoz, eguzki-plakak jarri dira eskolako eraikuntza zaharrean. Foru-aldundiak %50 inguru ordainduko du (19.000€).

## Sarrera-iturriak

Zenbait diru-sarrera izan dira; oraindik jaso ez den diru-sarrerei dagokionez, iazkoa erreferentziatzat hartu da.

Alde batetik funtzionamendurako/ekipamendu gastutarako diru sarrerak hezkuntza-sailetik:

- 49.500 € urriaren 21ean jasota
- 100.000 € inguru jaso ziren iaz martxoa-ekaina bitarte (*antzekoa aurreikusten da)

Bestalde, eskolak martxan dituen proiektuetarako finantziazioa jaso da:

- Bidelaguna 1.587 €
- Agenda 2030 2.820 €
- STEAM 1.912 €
- Kultur eskola 2.225 € (2021-22 ikasturteari dagokio)

Iaz kurtsoan zehar jasotako zenbait diru-sarrera espero dira, bai proiektuetarako, zein eduki digitaletarako.

Laburbilduz, orain arte 58.044 € jaso dira eta ekaina bitarte 100.000 € inguru jasotzea espero da.

Bukatzeko, ikasle bakoitzak 14€tako kuota ordaintzen du hilabetero, urtean 10 hilabetetan zehar hain zuzen ere guraso elkarteko kontura, honela banatuta:

- 5€/ikasleko/hilabeteko (27.800€ urtean gutxi gora behera): eskolako materiala erosteko
- 2€/ikasleko/hilabeteko (11.120€ urtean): teknologiako materiala erosteko
- 5€/ikasleko/hilabeteko (27.800€ urtean): irteerak eta jarduera osagarriak ordaintzeko
- 2€/ikasleko/hilabeteko (11.120€ urtean): guraso elkarteak kudeatzeko beharren arabera (irteera berezietarako…)

Hilabetero, eskolako eta teknoko materiala erosteko kobratutako dirua, eskolako gastuen kontura pasako da, hemendik ordainketak modu ofizialean bideratu ahal izango direlarik.

Gainontzeko dirua guraso elkarteko kontuan gorde eta bertatik egingo dira ordainketak.

Ikasturte hasieran, zuzendaritza guraso elkarteko partaideekin elkartuko da, mintegika proposatutako irteera eta jarduera osagarri eta aparteko jardueren berri emateko. Honen oniritzia jasotzea ezinbestekoa da ekintza guzti hauek aurrera eramateko.

Ikasturtean zehar dirulaguntza beharko duten jarduera edo proposamen berri gehiago sortzen badira (jaialdiak, ekintza bereziak) berriro ere guraso elkartearekin elkartu eta honek balorazioa egingo du.

## Kontrol-sistemak, gastuen justifikazioa eta erregistroa.

- Hezkuntza sailaren ikastetxeen kudeaketa ekonomikorako sisteman (***ikaskudek***). Bertan jasotako diru sarrera guztiak eta egindako gastuak azaltzen dira (faktura zenbakiak, zenbatekoa, azpikontzeptua…). Horretaz gain, faktura fisiko guztiak eskolan artxibatzen dira.
- Dagokion unetan ikasturtean zehar justifikapen osoa aurkeztuko da. Hortarako bi itxiera ekonomiko egiten dira, ekainean eta abenduan.
- Urtearen amaieran eskatutako datuak delegaritzara bidaltzen dira eta ontzat ematen badira urte ekonomiko berriari irekiera ematen zaio.
- Organo gorenean egoera ekonomikoaren berri ematen da. Gastu handiak egin baino lehen bertan kontsultatuko da.

# 7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIOA HELARAZTEKO PLANA

Ikastetxeko kide guztien arteko komunikazioa eraginkorra eta arina izan dadin, honako komunikazio-plana antolatu dugu:

➢ **IRAKASLEEN ARTEKOA**

- **MINTEGI BURU BILERAK;** Astean behin biltzen den batzordea da: Zuzendaria, ikasketaburua eta departamentu-buruek osatuko dute Mintegi Buru Batzordea, ikastetxeko zuzendaria buru izango duelarik
- **MINTEGI BILERAK**; Astean behin MBBretan adostutakoa mintegira eramateko gunea da; iritziak eta iradokizunak eman eta mintegiko koordinazioa aurrera eramateko gunea da.
- **ZUZENDARITZA + ORIENTAZIO BILERAK**; Astean behin. Asteartero biltzen da.
- **BATZORDE BILERAK**; Astean behin elkartzen dira batzordekideek eta zuzendaritza-taldeko partaide bat, batzordeko ekintzen plangintza eta proiektuak aurrera eraman ahal izateko: Hezkidetza, AGA, Normalkuntza, HBSP, Agenda2030, STEAM, berrikuntza, digitalizazioa.
- **KLAUSTROAK:** Irakasleek ikastetxean parte hartzeko berezko organoa da, eta ikastetxeko irakaskuntza-alderdi guztiak planifikatzeko, koordinatzeko eta erabakitzeko ardura du. Klaustroko burua zuzendaritza da, eta ikastetxean irakaskuntza-zerbitzuak ematen dituzten irakasle guztiek osatuko dute.
- **BESTELAKOAK:** Ikastetxeko irakasleen agenda digitalaren bidez (Google **classroom**) irteeren, bileren edo bestelako ekintzen berri ematen zaie irakasle guztiei. Baita **INIKA** aplikazio bidez ere. Bileren aktak gordetzeko **Drive** unitate partekatua erabiltzen da. Ikastetxera heltzen diren hainbat komunikazio **gmail** bidez berbidaltzen dira.

➢ **IKASTETXEA / GURASOAK ETA IKASLEEN ARTEKOA**

- **OOG BILERAK**; Hezkuntza komunitatea osatzen duten sektore ezberdinek hartzen dute parte organo gorenean .Kolektibo guztiak daude ordezkatuak; irakasleak, ikasleak, familiak, langileak. Ikasturtean zehar, gutxienez 2 alditan biltzen da.
- **WEBGUNEA:** Ikastetxeari buruzko informazioa eskegita dago: batzordeak, informazio orokorra eta abar. Aurten webgunearen berrikuntzari ekingo zaio.
  https://talaiabhi.hezkuntza.net/
- **IKASTURTE HASIERAKO TUTORE-BILERAK:** Ikasturte hasieran zuzendaritza taldea eta tutoreak gurasoekin lehen bilera presentziala egiten dute. Bertan ikastetxeko funtzionamenduaren berri ematen da.
- **IKASTURTEAN ZEHAR TUTORE BILERAK;** Ikasturtean zehar tutoreak familiekin elkartzen dira ikasleen egoeraren berri emateko. Bilera presentzialak izan daitezke zein telefonoz edo mailen bidezkoak eta  INIKA lehenesten da ohiko komunikazio tresna gisa.

## FAMILIAK ETA ORIENTAZIO-MINTEGIA

- DBHko 2. zikloko eta BATXIko ikasleak beraien etorkizuneko bidea eraikitzen hasten direnez, lanbide zein ikasketa arloetan, orientazio eta aholkularitza eskaintzen zaie hainbat bilera eta elkarrizketa bidez. Bide hau 3. DBH hasi eta Batxilergoan zein Lanbide Heziketan bukatu daitekeen.
- Ikasleek, gurasoek edo irakasleek ikasleriaren orientabide pertsonala edo bokazionalari buruz egiten duten banakako eskaerei ahal den neurrian erantzutea.

## ZUZENDARITZA ETA IKASLEEN ARTEKOA

- Ikasleek ordezkarien bitartez helarazi ahal izango dizkiete iradokizunak, iritziak zuzendaritza-taldeari, eta, era berean, zuzendaritza-taldeak ordezkarien bitartez erabakiak helaraziko dizkie. Zuzendaritzak hilabetean behin egingo ditu bilerak batxilergoko ordezkariekin.

# 8. ERANSKINAK.

## 8.1 OOG-ren ONARPEN-AKTA

IES Talaia BHI-ko Ordezkaritza Organo Gorenak, 2022ko azaroaren 15ean bildurik eta deialdiaren aurretik Ikastetxearen Urteko Plana irakurri eta aztertzeko aukera izanik, aho batez, 2022/2023 ikasturteko IUPari oniritzia eman dio.

Hau horrela izanik, agiri hau gauzatzen dut,

Hondarribian, 2022ko azaroaren 15ean

I.E.S. TALAIA B.H.I.
HONDARRIBIA

Jon Puignau
Talaia BHI – Zuzendaria

# 8.2 TUTORETZA-PLANA

## AURKIBIDEA

1. MARKO TEORIKOA

2. GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK

3. ORIENTATZAILEAREN EGINKIZUNAK

4. TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

5. LAN ESPARRUAK

6. EDUKI-MULTZOAK

7. PLANGINTZA (KRONOGRAMA)

7.1. LEHEN MAILA

7.2. BIGARREN MAILA

7.3. HIRUGARREN MAILA

7.4. LAUGARREN MAILA

7.5. BATXILERGOKO LEHEN MAILA

7.6. BATXILERGOKO BIGARREN MAILA

8. EBALUAZIOA

9. MEMORIA

10. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

11. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

## 1. MARKO TEORIKOA

Gure herrialdean Hezkuntza eta Lanbide-Orientazioa sortu zenetik gaur arte aldaketa ugari gertatu dira zerbitzuekin, eragileekin, eskatzaileekin, premiekin eta orientazio akademiko eta profesionalean esku hartzeko mailekin lotuta.

70. hamarkadako Hezkuntza Lege orokorrak Orientazioa hezkuntza sisteman ezarri bazuen ere, 1/1990ko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoak orientazioa kalitatezko elementu gisa definitu zuen. Lege honek ez zuen uste hezkuntza- eta lanbide-orientazioko prozesua irakasleek bakarrik egin zezaketenik eta horregatik orientazio-sistema mistoa ezarri zuen. Honen guztiaren ondorioz, ikastetxeko egituraren baitan Orientazio Departamentuak sortu ziren beste departamentu didaktiko bat bezala, orientatzailearen figura ezarriz eta funtzioak definituz.

Era berean, 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak bere printzipioetan hezkuntza orientabidearen inguruan honako aipamena egiten du:

> *<< f) Ikasleen hezkuntza orientabidea eta lanbide-orientabidea, jakintzetan, trebetasunetan eta baloreetan integrala izango den hezkuntza baterako bidea emango duen prestakuntza pertsonalizatua lortzeko beharrezko baliabide gisa>>.*

Azpimarratzekoa da, III. kapituluko 22. artikuluan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapako orientazioari buruz egiten den aipamen berezia, hau adieraziz:

> *<<Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan arreta berezia jarriko da ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioan>>*

Era berean, Hezkuntzako Lege Organikoak, 26. artikuluan honakoa adierazten du ere:

*<<Hezkuntza-administrazioek beharrezkoak diren neurriak sustatu beharko dituzte, ikasleen tutoretza pertsonala eta hezkuntza-orientabidea, orientabide psikopedagogikoa eta lanbide-orientabidea etaparen antolamenduaren funtsezko elementu izan daitezen>>.*

Egun, indarrean dagoen 2020ko abenduaren 29ko LOMLOE legeak, Orientazioaren ikuspegi bera dauka, baina Bigarren Hezkuntzan generoaren ikuspegia ezartzen du.

Gure hezkuntza sistemara hurbilduz, *xxx/2022 Dekretua*, xxxaren xx(e)koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak (hots, Euskal Hezkuntza Legearen zirriborroak), bere 3. kapituluko 19. artikuluan dio: <<hezkuntza-orientazioa irakaskuntza-jardueran txertatutako laguntza-prozesu jarraitu eta sistematikoa da. (...) helburua da ikasleei laguntzea beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izateko eta herritartasuna baliatzeko behar dituzten oinarrizko konpetentziak garatzen eta eskuratzen>>.

Ikaslea ikaskuntza-prozesuan eta bizi-garapenean laguntzeko ardura irakasle-taldeari dagokio eta, bereziki, tutoreari (bere erantzukizuna dira bere taldeko ikasleen orientazioa, taldeko irakasleen koordinazioa, eta familiekiko eta legezko tutoreekiko komunikazio arina).

Tutoretza Planaren bidez antolatzen da tutoretza-saioetan landu beharreko orientazioa (plana Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren zati da), eta tutorearen esku-hartzea sistematizatzen da ikasleen banakako edo taldekako jarraipenean, familiekiko harremanetan, eta irakasleekiko zein kanpo-eragileekiko koordinazioan.

Tutoreei dagokie Plan hori aurrera eramatea, taldeko irakasleekin eta ikasle-taldearen gainerako eragileekin batera. Ikastetxeko orientatzaileek lagunduko diote lan horretan.

Aipatutako gakoetan oinarrituta, plan hau 2022-23 ikasturterako Talaia BHIn **DBHrako eta Batxilergorako Orientabide eta Tutoretza**ri buruz egingo diren jardueren eta printzipioen gida izango da; oinarrizko baliabidea da, bere oinarri pedagogiko-didaktiko prozesua dinamizatzen saiatzeko eginda dagoena. Ikastetxeko komunitate guztiari zuzenduta dago, garapen pertsonaleko, familiarreko, soziokulturaleko, akademikoko eta profesionaleko alderdiak antolatzeko asmo orientatzailea du.

## 2. GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK

Hezkuntza- xedeek hezkuntza- prozesu osoaren norabidea erakutsi eta zentzua ematen diote. Ikasleen irteera- profil orokorrak definitzen ditu ikasleak Oinarrizko Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean izan beharreko oinarrizko konpetentziak, hezkuntza- xedeak lortzeko eta bizitzaren arloetan eta egoeretan moldatzen jakiteko. Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak oinarrizko konpetentziak lortuz iristen dira.

ELGAren DeSeCo (2005) proposamenaren arabera, “ezagueren eta trebetasunen gainetik konpetentziak daude”. Konpetentzia eskaera konplexuei erantzuteko eta zereginak egoki burutzeko ahalmena da. Trebetasun praktikoak, jakintzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizartearen eta jokabidearen beste osagai batzuk elkarrekin mobilizatzea eskatzen du, ekintza ganorazkoa izan dadin.

**Oinarrizko konpetentziak** pertsona guztiek behar dituztenak dira, beren burua errealizatzeko eta garatzeko, bai eta herritartasun aktiborako, inklusio sozialerako eta enplegurako ere (Europako Erkidegoen Batzordea, 2006).

Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko berriak Heziberri 2020 ereduan jatorria badu ere, Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioari (2018) jarraituz, Euskal Hezkuntza Lege berrian

funtsezko konpetentziak eta espezifikoak bereizten dira, hain juxtu ere aurtengo ikasturtean 1. eta 3. mailan martxan jartzen direnak.

**Funtsezko konpetentziak** ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka nagusiei aurre egiteko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak dira. Ondokoak bereizten dira:

4 Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
5 Konpetentzia eleaniztuna.
6 Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia.
7 Konpetentzia digitala.
8 Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikaten ikastekoa.
9 Herritartasunerako konpetentzia.
10 Ekintzailetza-konpetentzia.
11 Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Funtsezko konpetentzien deskribatzaile operatiboetatik zehazten dira arlo, eremu edo gai bakoitzaren **konpetentzia espezifikoak**, arlo, eremua eta gai bakoitzaren oinarrizko jakintzak behar diren jardueretan edo egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak alegia. Honela ba, deskribatzaile operatiboen eta konpetentzia espezifikoen arteko lotura horrek, azken horiek ebaluatzean, irteera-profilean definitutako fnutsezko konpetentzien eskuratze-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako konpetentziak eta helburuak lortzeko ahalbidetzen du.

## 3. ORIENTATZAILEAREN EGINKIZUNAK

2022-2023 ikasturte hasierako ebazpenaren arabera, orientatzailearen eginkizunak bost esparrurekin lotutakoak dira: aniztasunari erantzutearekin lotutakoak, orientabidea eta tutoretzarekin erlazionatutakoak, bizikidetza sustatzekoak, beste eragilekiko koordinazioari buruzkoak eta azkenik irakaskuntzarekin zerikusia duena.

- **Aniztasunari erantzutea**

12 Tutorearekin, taldeko irakasle taldeekin eta orientabide-sailaren barruan, ikasleek ikasteko dituzten zailtasun-egoerak detektatzea eta aztertzea, behar izanez gero ebaluazio psikopedagogikoa egitea, antolamenduko, metodologiako, hezkuntza-indargarriko eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapeneko neurri komenigarrienei buruz aholkatzea eta horien jarraipena egitea.

13 Ikastetxeko irakasleak arreta espezifikoko planak eta programak diseinatzen aholkatzea, garatzea eta ebaluatzea (curriculum- aniztasuneko gelak, zereginen ikaskuntzarako gelak, hezkuntza-indargarri espezifikoko programak, gaitasun handiko ikasleak) eta hauen jarraipena egiteko.

14 Irakasle taldearekin elkarlanean aritzea ikastetxeko hezkuntza-indargarriko plana egiten. Plan horretan, irakasleek beraiek diseinatutako hezkuntza-neurriak hartuko dira, banakakoak edo kolektiboak, eskola-zailtasunen aurrean ikasleen ikaskuntza indartzeko.

- **Orientabidea eta tutoretza**

15 Etapa bakoitzerako orientabide profesionaleko programa bat prestatzea ikastetxeko ikasleentzat, ibilbideak eta etorkizun profesionala aukeratzean berdintasuna sustatuz, programa garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzea.

16 Tutoretza-plana prestatzeko aholkuak ematea eta maila bakoitzeko tutoreekin aldian-aldian koordinazio-bilerak egitea, plana garatzeari eta ebaluatzeari buruz aholkatzeko, Bizikasi ekimenaren barruko proposamen didaktikoak espezifikoki lantzeko programatutako jarduueretan bereziki.

17 Irakasleak aholkatzea DBHko ikasturte bakoitzaren amaieran ikasleen orientabide-kontseilua prestatzeko, hezkuntza-neurriei eta prestakuntza-ibilbideko proposamenei buruzko erabakietan bereziki.

18 Ikasleak eta haien familiak aholkatzea, bereziki garapen pertsonal eta akademikoarekin, hezkuntza-etapen arteko trantsizioarekin eta prestakuntza-ibilbideak aukeratzearekin zerikusia duten gaietan.

- **Bizikidetza**

19 Bizikasi ekimena dinamizatzeko taldean kide aktibo gisa parte hartzea.

20 Talde dinamizatzailearekin batera, bizikidetza-arazoak prebenitzeko eta konpontzeko eginkizuna gidatzea.

21 Ikastetxean sor daitezkeen jokabide-arazoei aurre egiten eta horiek konpontzen laguntzea.

22 Etengabe hobetzea.

23 Ikastetxeko koordinazio pedagogikorako batzordearekin lankidetzan aritzea, batez ere ikasketaburutzarekin, didaktika-sailak eta irakasle taldeak koordinatzeko proposamenak eta jardun-planak aurkeztuta.

24 Zuzendaritza-taldea aholkatzea hezkuntza berritzeko eta irakatsi eta ikasteko prozesuen etengabeko hobekuntzako programa-proiektuak prestatu eta abian jartzeko.

- **Beste eragile batzuekiko koordinazioa**

  **25** Ikastetxetik kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragileekiko eta laguntzekiko koordinazioan lankidetzan aritzea, ikasleen jarraipen egokia, integrazioa eta arrakasta akademikoa lortzeko.

- **Irakaskuntza**

  **26** Bere espezialitatearekin, hala badagokio, lotutako ikasgaiak irakastea.

Gainera, orientabide-planean jasoko ditu orientabide-sailak ikasturterako aurreikusitako jarduerak eta IUPean txertatuko ditu. Ikasturtea amaitzean, orientabide-planaren ebaluazioa sartuko du ikastetxearen memorian.

## 4. TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

5.

Tutoretza plan honen bidez, hainbat helburu gauzatzen lagundu nahi da:

1. Nork bere buruaren ezagutza aztertzea eta errealitate soziolaboralari buruz autonomiaz hausnartzea, bere etorkizuneko proiektu pertsonala bere ahalmenen eta balioen arabera zehazteko, genero ikuspegiari helduz.

2. Norberaren esperientziak aztertzea eta egiaztatzea eta bere inguruko pertsona garrantzitsuak baloratzea, norbere buruaren irudi positiboa, norbere buruarekiko konfiantza eta eraginkortasuna lortzeko.

3. Bizitzeko esperientziak eta bere nahiz gizarteko gatazka-egoerak irizpidez aztertzea, bai eta hainbat aukera baloratzea ere, elkarrizketa oinarri hartuta erabaki arduratsuak hartzeko, besteekin eraikitzeko eta bere balioekin eta pentsaerarekin koherentea izateko.

4. Ikastetxeko eta ikasgelako bizitzan gogo biziz parte hartzea eta, elkarbizitza-arauak errespetatzeaz aparte, bertako funtzionamenduarekin lotutako ekintzetan eta erabakietan partaide izatea, horrela herritar aktibo, arduratsu, adeitsu eta kritiko gisa jokatzeko.

5. Jarrera irekia mantenduz, eskola-jarduerak gauzatzeko moduari eta egindako ahaleginari buruz hausnartzea; honela, bere eskola-errendimendua ebaluatu eta beharrezko dituen hobekuntzak sartuko ditu, eta horretaz gain, ondo egindako lana baloratuko du.

6. Inguruko pertsonekin elkarlanean ikuspegi sortzailez jardutea eta beste pertsonen bidez norbere pentsamendua eraikitzeko, ideiak eta esperientziak partekatzeko, taldean lan egiteko eta komunikazio-sareak ezartzeko duen beharra baloratzea.

7. Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerekiko kritiko agertzea eta aniztasuna onartzea eta errespetatzea; horrela, kulturartekotasuneko gizarte honetan bere portaera bat etorriko da justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin hala ingurumena eta jasangarritasunerako balioak sustatuz nola genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria eta abusu mota guztien prebentzioa eta probentzioa bultzatuz.

## 6. LAN ESPARRUAK

Talaia DBHko eta Batxilergoko D ereduko zentrua handia izanik (500 ikasletik gorakoa), hainbat irakaslek Orientazio mintegia osatzen dugu:

- DBH4ko eta Batxilergoko orientatzailea, mintegiburua dena.
- DBH1-3 arteko beste orientatzaile bat.
- Pedagogia Terapeutikoko bi irakasle oso eta erdi bat.
- Aniztasuneko bi esparruetako irakasle bana (aldi berean tutoreak direnak).

Proiektu desberdinak burutzen dira eskolan. Gehienen xedea aniztasunaren trataera da .Orientazio-mintegiak horietako hainbat proiektutan hartzen du parte: Hezkidetza, HBSP (Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa), Bidelaguna eta Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa.STEAM

Tutoretzaren bitartez gure ikasleak bizitza-proiektua eraikitzeko beharko dituzten konpetentziak eskuratzen lagundu nahi ditugu. Horretarako lana egingo da bai ikasleekin, bai irakasleekin, bai familiekin eta baita beste eragileekin ere.

